

Noaia!!!

www.noaia.com



“Ahuntza edo nor da Silvy”,
antzezlanaren Sutegin



Igandean,
Artisautza Azoka



**GONZALEZ
EHORZTETXEA**
munalurra 8 Usurbil



30.URTEURRENA

Gonzalez Ehorztetxeak 30 urtetan usurbildarrek guregan izandako konfidantza eskertu nahi du:

- Segururik ez duten familientzat Usurbilgo tanatorioa **DOAN** izango da, gure ehorztetxearen eskutik.
- Segurua dutenak eta **ZUZENEAN** Gonzalez ehorztetxeari deitzen duten familientzat **BONIFIKAZIO** bat izango dute zerbitzuan.

24 ORDU, BELATOKI GUZTIAK, SEGURU GUZTIAK, ERRAUSKETAK, LEKUALDAKETAK, EGOITZETAN...

943 36 21 63 - 660 388 652 - 608 167 792

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Errausketaren egiak:

- Erraustegiaren inguruko etxebizitza, lur eta ondasun guztien balioak %15 eta %30 arteko galera izango du.

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BAsERPIA HERRIA
BIZIRIK



saltxipi 
jatetxea



Beriko janaria, zatoz Donostira!

Atzerrietako gaitzarra zaharra, 3

20.013 Donostia

Telefonoa 943.323.310

www.saltxipi.com

Albiste iruditan !!

Larunbat honetan, kantu-jira

Duela urte batzuk, euskal kantuen inguruan, taldeak osatzen hasi ziren herriz herri. Bide horri jarraituz, taldetxo bat osatu zen iaz Usurbilen. Udarregin hasi ziren elkartzen. Lehen entseguak egin eta berehala kalerako bidea hartu zuten. Geroztik, maiz aritu dira kantuan eta jai eta ekitaldi ezberdinetan aritu dira kantuan.

Urriaren 1ean, berriz ere entseatzeko hasi ziren. Iaz bezala, Susi Elozegi da euren irakaslea. Larunbat honetan, kantu-jiran ibiliko dira herrian. Iluntzeko 19:00etan elkartuko dira frontoian. Euskal kantuak abestuz, kalejiran ibiliko dira. Deialdia irekia denez, kantuan aritzeko gogoz dauden guztiak atek irekiak dituzte.



URRIAREN 12AN ZUBIETAN ARITU ZIREN KANTUAN. LARUNBAT HONETAN, KANTU-JIRA 19:00ETAN ABIATUKO DA USURBILGO FRONTOITIK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.
 Tirada: 2.800 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
 Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ARTISAUTZA AZOKA	5. OR.
LANERA ITZULI DIRA INGEMARREN	7. OR.
OSTIRALEAN, ANTZERKIA SUTEGIN	13. OR.
USURBILDAR ASKO LASARTEKO KROSEAN	15. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Hypatia

Nire zine zaletasunaren berri baduzue aspaldidanik, Aurreko igandean ikusi nuen Alejandro Amenabarren “Agora” pelikula. Forotxo honetan bertan idatzi nuen lehen ere bere filma “Itsas zabalerantz”-i (“Mar adentro”) buruzko gogoeta bat.

Hitz batez esanda: libertateari himnoa, oda eta fanatismo guztien aurkako salaketa da pelikula hau.

Hypatiaren biografia honako lerro hauek laburbildu daitezke: 370ean K.o. jaio zen Alejandrian. Bere aita matematikoa eta astronomoa zen. Heziketa zabala eman zion bere alabari. Matematika eta filosofia irakatsi zituen Alejandrian. Astronomian ere oso jantzia zen. Luzaro kontsideratua izan da lehen emakume zientifikoa.

Garai hartan, Alejandria (Egipto) jakinduri gorenaren gunea zen. Aldi berean, Erromako inperioaren hirugarren hiria biztanle kopuruari dagokionez. Biblioteka ospetsuena ere bertan zegoen. Teodosio enperadoreak debekatu egin zuen kultu paganoa, kristau erlijioari ofizialtasuna emanez.

S. Zirilo zen Alejandriako Patriarka; gizon zorrotza eta nahiko fanatikoa. Sasijainkoen zantzu txikiak ere gogor salatu eta erasotu zituen. Orestes Prefeta kristau bihurtu zenean Zirilok botere osoa eskuratu zuen.

Bi akats leporatzen zizkieten Hipatiari: sorginkeria eta bataioari uko egitea; beraz, bertako kristau “guru” nagusiek anatema deklaratu zuten. Kristau talde integrista baten (“nobiaziakoak”) buruak berotzen saiatu zen Zirilo eta lortu zuen fundamentalista horiek gorrota zezatela Hipatia; azkenean, harrikatu, larrutu eta erre egin zuten.

Emakume libre eta jakintsu honen bizitza nahiko mitifikatua dago; baina, lerro hauek adierazitako datu apur hau badirudi historikoa dela. Beti gertatu ohi den bezala, manipulazio lotsa-

garri baten ondorioa izan zen kristau talde taliban haren jokabide basatia. Oso ederki agertzen du pelikulak nola arduradun erlijioso batzuek (apaiz, gotzain...), maneiatzeko zitzuten zenbait kristau ezjakin, txiro, inongo zentzu kritikorik ez zuten haien kontzientziak! Ez da harritzekoa, beraz, gertatutakoa: pertsona libre eta kritikoa eliminatzea.

Kristau talde konkretu horren portaeran beste datu bat aurkitzen dut benetan lotsagarria: emakumearekiko mesprezua. Emakumearen duintasunaren eta askatasunaren paladin edo defendatzaile sutsuena Jesus nazaretarra izan zen. Ez da egia emakumea libre izan zela antzinako Grezian eta Erroman eta kristautasunak bihurtu zuela gizonaren esklabo edo menpeko. Historialari batek dioen bezala: “senarraren edo aitaren tutoretzapean, babespean zegoen, ez zen “sui iuris”, hau da, bere eskubideen jabe”. Horregatik, Hypatiari zioten mesprezua da ebanjelioari egin ziezaioketen traiziorik handiena.

Amenabar-ek dio: “ez da kristauen aurkako filma, ideia batengatik hiltzeko prest daudenen kontrakoa baizik. Hipatiak lotura handia du Jesus nazaretarrarekin: bakea eta anaitasun unibertsala aldarrikatzen baitzituen”. Egiazale hark zientzian eta senidetasunean aurkitu zuen bizitzaren zentzua. Kristauen ideia erlijiosoak guztiz errespetagarriak iruditzen zitzaizkion, nahiz eta bera kristau ez bihurtu; ez zuen horren beharrik sentitzen nonbait. Beraz, tolerantziaren ikono nagusia dugu.

Hypatiak ongi aski betetzen zuen Vicente Ferrer filantropo handi hark euskal politiko bati esaten ziona: “Zergatik habil egiazen bila? Ontasuna duk egia. Ekintza on batean laburbiltzen dituk erlijio, filosofia eta teologia guztiak. Jainkoa bera ere”. 1600 urte badira Hypatia martiritatu zutela. Tolerantziaren eta jakinduriaren faro horri dizdira berri bat eman dio Amenabarrek. Bejondeiola!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Bidezko merkataritza, Elkartasun Astea

Elkartasun Asteko lehen ekitaldia bertan behera geratu zen, Saharako herriari buruzko afari-tertulia, Brahin Dahane hizlaria egun batzuk lehenago atxilotua izan zelako Marraketxen.

Hala ere, gainontzeko ekitaldiak bere horretan mantendu zituzten. Larunbatean, bidezko merkataritzari buruzko produktak jarri ziren salgai, Mundubat eta Mugen Gaietik gobernu kanpoko erakundeen eskutik.



Igande honetan, XIV. Artisautza Azokarekin hitzordua

Aitzagak itxita jarraitu arren, aizen bera daraman kultur elkarteko kideek lanean jarraitzen dute. Oraingoan, azaroaren lehenean hutsik egiten ez duen hitzordua prestatzen. Badator eta, Artisau Azokaren hamalagarren edizioa. Eta honenbestez baita, bitxigintzan, zeramika eta egur lanketan, edota metalgintzan diharduten artisaauak. Igande honetan, goizeko hamaiketatik aurrera frontoian euren postuak ezagutu eta produktuak erosteko aukera izango da.

Eskuz landutako produktuek urtero izaten dute bere txokoa pilotalekuan. Batzuk produktuak erakusgai jartzeaz gain, bere postu parera hurbiltzen direnek nola lan egiten duten ere ikusteko aukera izan ohi dute. Hamalagarrenez, azaroaren lehen egunarekin batera ospatuko da Aitzaga Kultur Elkarteak antolatu ohi duen Artisau Azoka.

EUSKAL ARTISAUTZA

“17 postu jarriko dira pilotalekuan. Euskal Herri osotik datozen artisaauak elkartuko dira igandean”

Edizio honetan ere 17 bat postu jarriko dira pilotalekuan, Euskal Herri luze eta zabaletik gonbidatuta datozen artisauekin. Batzuk produktu gozoekin, esnekiekin bestak. Eskuekin material desberdinez erakitako artelanak egongo dira; harria, larrua edo egurra erabilia sortutako lanak.

Eta hauekin guztiekin batera, gure osasuna zaintzeko erremedioen txokoa, ukenduekin etorri ohi diren artisauekin.



GOIZEKO 11:00ETAN HASIKO DA ARTISAUTZA AZOKA. 17 POSTUTAN BANATUKO DIRA EUSKAL HERRI OSOTIK ETORRITAKO ARTISAUAUK.

Tartean, herritarrak

Horien artean, ez da Usurbilgo ordezkariarik faltako; batetik, Alkartasuna Nekazal Kooperatibakoek euren tresneri eta produktuak erakusgai jarriko dituzte. Sagardogintzako materiala eta bertako hainbat produktu. Bestalde, Martin Agirresaroberen eztiarekin lotutako produktuek ere bere tarte izango dute.

Artisau azokan jan edanik ez da faltako. Horretarako, lanean jardungo du herritar talde batek urtean zehar herrian ospatu ohi diren beste hainbat ekitaldian bezala. Txorizo eta taloa dastatzeko aukera izango da, azokan osteratxo egiteaz gain, sabela hutsik dugula bertatik joan ez gaitezen.

Aitzaga, itxita baina martxan

Egoitzak itxita jarraitu arren, Aitzaga Kultur Elkarteko kideek urtean zehar ekitaldiak antolatzen jarraitzen dute. Azkena, duela astebate kurdien herriari buruz Sutegin burutzen hitzaldia.

Azoka, goizetik eguerdira arte

Eguna: azaroak 1, igandea.

Ordutegia: 11:00-14:00.

Tokia: pilotalekua.

Postuak: egur lanketa, bitxigintza, zeramika, otargintza, metalgintza, larrugintza...

Beste hiru azoka begibistan
Azaroak 8 igandea, XI. Erle Eguna.

Azaroak 17-22, Reziklarte.

Azaroak 25, igandea, Merka2 San Markos, bigarren eskuko produktuen azoka.



Lasarte-Oriako PSE-EEk atez-ateko sistema ez ezartzea erabaki du

Iazko pleno batean, ordea, ekimen honen alde azaldu zen alderdi sozialista

O iartzun eta Hernaniko udalek atez ateko bilketa sistema ezartzeko asmoa dute. Laster hasiko dituzte partehartze proiektuak. Lasarte-Orian, ordea, atez atekoaren aurka azaldu da PSE-EE, alkatetza duen alderdia. Iazko martxoan atez atekoaren alde azaldu bazen ere, orain alderdi sozialistak ez du atez ateko martxan jarri nahi. Honen ondorioz, PSE-EE eta Ezker Batua-Berdeak alderdiek zuten gobernu-akordioa hautsi egin da Lasarte-Orian.

Lasarte-Oriako Ezker Batua Berdeak PSE-EEekin zuen gobernu akordioa apurtu egin da. Hala adierazi zuen Rikardo Ortega EB-Berdeakeko zinegotziak aurreko ostegunean eskaintako prentsurrekoan.

RICARDO ORTEGA, EB-BERDEAK

“Usurbilen atez atekoak lortu duen birziklatze-tasak errauskailua ez dela beharrezkoa frogatu du”

Udal akordioa atez atekoarengatik apurtu da. Ricardo Ortégaren esanetan, Lasarte-Oriako alderdi sozialistak ez du atez-ateko zabor biltzetaren esperientzia martxan jartzeko konpromisoa beteko. “2008ko martxoaren 13ko osoko bilkuran, alderdi guztiek, PPK izan ezik, ekimen horren alde bozkatu genuen, baina orain, alderdi sozialistak, gure taldearen ustez funtsezkoa den akordioa baztertu du”, adierazi zuen Ortégak.

Atez ateko bilketa, zaborren gutxitzea, birziklatzea eta konpostajea bultzatzea oinarrizko neurriak dira EB-Berdeak alderdiarentzat: “horixe baita, hain zuzen ere, EAJ, EA, Hamaikabat, PSE-EE eta PPK egin nahi duten errauskailua zentzurik gabe utziko lukeena,” esan zuen Ortégak.

Txintzarri Lasarte-Oriako aldiakarian jasotako adierazpenetan, Usurbilgo atez atekoa jarri zuen adibide gisa Ricardo Ortega Lasarteko EB-Berdeak alderdiko zinegotziak: “Usurbilen martxan jarritako neurri honek lortu duen birziklatze-tasak errauskailua ez dela beharrezkoa frogatu du eta, gure ustez, Lasarte-Oriako herritarrek ere, hala ulertzen dute orain dela gutxi gure udalerrian egin den zaborrei buruzko herri ikerketen emaitzen arabera”.

Errauskailuaren aurka

Era berean, EB-Berdeak errauskailuaren kontra egingo duela azpimarratu zuen, “ez delako azpiegitura iraunkorra, baliabideak xahutzen dituelako eta emisio toxiko eta minbizi-sortzaileak igortzen dituelako. Eta, honetaz gain, zabortegeien ondorengo garaiari hasiera eman beharrean, zabortegei toxiko eta arriskutsuen garaira eramaten gaitu”.

“Beraz, Ezker Batuak zaborren gutxitzea eta birziklapen intentsiboa ahalbidetuko duten neurriak bultzatzen jarraituko du eta horien artean funtsezkoa da atez-ateko bilketa”, gehitu zuen San Markos Mankomunitateko presidente ere den Ricardo Ortégak.

Hiritarren parte hartzea

Gauzak honela, Ezker Batua Berdeak hiritarrei dei egin die euren ahotsa entzunarazteko ahaleginak eta ekimenak bikoiztu ditzaten. “Ekiteko eta elkarrekin ekiteko garaia iritsi da, auzokideen elkarrekin, gurasoien elkarrekin, sindikatuak, alderdiak, talde ekologistak, herri elkarrekin...”, esan zuen Ortégak.

Eta, egoera honi begira, Lasarte-Oria Bizirik taldearen papera ere azpimarratu zuen, “gure ustez, Lasarte-Oria Bizirik-ek errauskailuaren aurkako borrokaren aitzindari izan behar du eta alternatibaren alde egin beharko du, hemen eta orain atez-ateko bilketa ere aldarrikatuz”.



RICARDO ORTEGA SAN MARKOSKO
PRESIDENTEA DA ETA EZKER BATUA
BERDEAKEKO ZINEGOTZIA LASARTE-ORIAN.

Oposizio lasaia

PSE-EE alderdiaren erabakiaren ondorioz, “oposizioan egotera behartu gaitu. Eurek ezagutzen dute gai honekiko daukagun sentsibilitatea”, esan zuen EB-Berdeak alderdiko zinegotziak.

“Gai askotan iritzi desberdinak izan ditugu, batzuk konpontzeko gai izan gara beste batzuk berriz, baztertua utzi behar izan ditugu, baina oraingo honetan, gai honekin gertatutakoa gehiegizkoa izan da”, onartu zuen Ortégak.

Azaroaren 28an, manifestazioa Donostian

Hondakinen Euskal Legea osatzeko, herri ekimena jarri zuten martxan Errausketaren aurkako plataformek. Behar ziren 30.000 sinadurak lortu bazituzten ere, herri ekimenaren proposamena ez du aintzat hartu Eusko Legebiltzarrak. Honen aurrean, manifestazioa deitu dute herri plataformek: azaroaren 28an Donostian.

Prensurrekoan adierazi zuten, “oraingoan ez dugu bakarrik zaborren kudeaketa osasuntsu eta iraunkorra eskatuko edo zaborren gaineko euskal legea errebindikatu. Oraingoan benetako gizarte demokratikoa eta partehartzailea exijituko dugu”.

Ingemarreko langileak lanera itzuli dira

Hilabeteko mobilizazio saioen eta beste hainbeste denbora, greba mugagabea egon ostean, aste hasieratik lanean dira berriz Ingemarreko langileak. Azken asteotan enpresako zuzendaritzak eta langileen batzordeko kideek burutu duten negoziazio prozesuak ekarri duen ondorio nagusia da. Besteak beste, kanporatuak izan diren hogeitaz hamar langileetatik hamaseiren kalte-ordainak adostu eta aurrera begira, berriz halako egoerak saihesteko urratsak eman dituzte.

Hilabetez greba mugagabea egon ostean, igaro den astelehenaz geroztik lanean dira berriz Ingemarreko langileak. Prozesu luze eta gogorra izan dela aitortu dute langileen batzordetik, baina azkenean, dirudienez euren eskaeretako batzuk onartzeko balio izan du.

ADOSTU DUTENA

“Negoziazioari esker, kaleratutako 20 langileetatik 16ren kalte ordainak adostea lortu da”

Enpresa zuzendaritzak uztaila amaieran kaleratutako hogeitaz hamar langileak ez dituzte berriz onartuko, baina enpresako zuzendaritza eta langileen batzordearen arteko negoziazio prozesuari esker, 20tik 16 langileren kalte ordainak adostea lortu da. Bi aldeak duela astebete bildu zirenean, erabakia langileen gehiengo osoaren babesarekin onartu zen.

Negoziazioak nola erraztu

Ingemarreko lan taldeak beraz, hogeitaz hamar langile gutxiago ditu egun.



GREBAN IZAN DIREN EGUN HAUETAN, MOBILIZAZIO UGARI EGIN DITUZTE.

Mobilizazioak iragarri zituztenetik bestalde, enpresaren etorkizuna kolokan ikusten zuten langileak. Azken asteotako bilkurak direla eta, aurrerantzean Ingemarreko langileek bizi izan duten antzeko egoerak saihesteko hitzarmena adostu dute, lan bermeen inguruko plana. Oraingoan, datorren urteko martxora arte indarrean egongo dena. Helburua, halako gatazkak sortzen direnean bi aldeak negoziatzera bultzatzea litzateke, edozein erabaki hartu aurretik, negoziazio bidea erraztea. Aurre jubilatuzioak edota baja boluntarioak adosteko adibidez.

Elkartasun keinu ugari

Eskerrak eman nahi dizkiete, asteotan laguntza eskaini eta elkartasuna adierazi dieten erakunde eta herritarrei. Negoziazio prozesu honen amaiera honetara, haiei guztiei esker ailegatu direla diote langileen batzordetik.

Hiru hilabete gorabeheratsu

2009/7/30: Hilabete amaieran, enpresako zuzendaritzak hogeitaz hamar langile kaleratzen ditu.

2009/9/4: Hainbat elkarretaratze burutu izan dituzte langileak, tartean, senitartekoekin enpresa atarian egindakoa.

2009/9/5: Langileen batzordeak mobilizazioen egutegia onartu zuen.

2009/9/8, 15, 17, 22, 23, 24: greba egunak.

2009/9/18: LAB sindikatuak deitutako eskualde mailako manifestazioa herriko kaleetan zehar, hainbat enpresatako langileak bizi duten lan egoera salatzen.

2009/9/25-10/25: Greba mugagabea.

2009/9/29: Enpresa zuzendaritza eta langile batzordearen arteko bilkura, negoziatzeko norberak dituen eskaintzak aurkezteko. Bi aldeen arteko negoziazio prozesuaren hasiera.

2009/9/26: Greba mugagabearen amaiera. Langileak lantokira itzuli dira.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Otar-Goxo
Elkargiak
Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13
Olandegin - Gozotegia
LABE-GOXO

Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak Bordatxo tabernan jarri dituzte salgai

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen kanporaketak amaitu dira. Azaroan, finalurrekoak jokatu dira eta, final handia, abenduaren 13an izango da, Barakaldoko BECen. Duela lau urte, jendetza elkartu zen eta sarrera denak agortu ziren. Honakoan ere, antzekoa gertatzeko traza guztiak ditu. Sarrerak alde aurretik eskuratzeko aukera dago, ordea. Urruti joan gabe, Bordatxo tabernan jarri dira hainbat sarrera salgai. Abenduaren 13an izango den finalerako sarrerak eskuratu nahi duenak, beraz, Bordatxon aurkituko ditu. Salneurria: finalerako, sarrera 26 euro. Aukeran, BECeko finaleko bazkarirako txartela eta autobusez joateko txartelak ere jarri dira salgai. Informazio gehiago: www.txapelketanagusia.eu



FINALA ABENDUAREN 13AN JOKATUKO DA BARAKALDOKO BECEN. SARRERAK ALDEZ AURRETIK BORDATXO TABERNAN JARRI DITUZTE SALGAI.

Eskaintza zabala

Etumeta-AEK euskaltegian

Alfabetatze taldeak, euskara ez dakitenentzat ikastaroak, EGA prestatzeko saioak... 2009-2010 ikasturteari begira, eskaintza zabala prestatu dute Etumeta-AEK euskaltegikoek. Oraindik bada izena emateko aukera.

Gau Eskola: Euskara ez dakitenentzat. Gau Eskola, 20:00-22:00.

Alfabetatze Taldea: Klaseetako ordutegia, 18:00-20:00.

EGA prestatzeko taldea: Ordutegia, 18:00-20:00.

Zerbitzu osagarriak: Tutoretza klaseak, gramatika edota mintzamena indartzeko. Astean bi orduz.



IKASTURTEA HASI BADA ERE, ORAINDIK IZENA EMATEKO AUKERA DAGO ETUMETA-AEK EUSKALTEGIAN.

Matrikulazioa:
Etumeta AEK Euskaltegia, Kale Nagusia, 43 (Zumarte ondoan).
Telefonoa: 943 372 001
E-posta: usurbil@aek.org

Berdintasunerako Udal Plana osatzen

Udala, Elhuyarren laguntzaz, Berdintasunaren Udal Plana diseinatzen ari da. Herritarren parte-hartzea funtsezkotzat jotzen da. Bilera irekiak antolatu dituzte, herritarren iritzia biltzeko.

Kirol arloa

- Zer egin kirol-ekintzetan emakumeek eta gizonek protagonismo bera izan dezaten?

Noiz: azaroak 3, asteartea, 19:00etan Artzabalen.

Ongizatea, Gizarte Zerbitzuak

-Zer hobetu emakume, adineko edota bazterketa egoeran daudenen behar eta aukerei erantzuteko?

Noiz: Azaroak 10, asteartea, 17:30ean, Artzabalen.

Hezkuntza arloa

-Nola hezi neska-mutilak berdintasunean?

Noiz: Azaroak 17, asteartea, 18:00etan, Udarregi ikastolan.



Alameda jatetxea, Hondarribia

“Hobeto funtzionatzeko oso baliogarria izan da Q ziurtagiria”

Aiton-amonak jarri zuten martxan Alameda jatetxea. Gurasoek eman zioten jarraipena eta orain Gorka Txapartegi da Hondarribiko jatetxe hau kudeatzen duena. Q kalitate ziurtagiria eskuratu zuen iaz Alamedak. Baina ez da jaso duten aipamen bakarria izan. Duela urte batzuetatik hona, Michelin izar bat du Txapartegi sendiaren jatetxeak. Horri, Q ziurtagiria gehitu diote.

Sektore turistikoarekin lotutako kalitate-sistemaren aldeko apustua egin duzue. Zeintzuk izan dira pauso hori emateko arrazoi nagusiak?

Gorka Txapartegi. Kasualitatez izan zen. Q kalitatearen ziurtagiria ezartzeko kanpaina egitekoak zirela adierazi ziguten Ostalaritza Elkartetik. Guk, aurretik, hainbat ikastaro eginak genituen. Ondo etorriko zitzaigula pentsatu genuen eta animatu egin ginen. Batez ere, barne antolaketa sendotu nahi genuen; hori ziurtatuz gero, jatetxearen funtzionamendua hobea izango da. Kanpora begira ere, irudi bat eskaintzen duzu eta hori positiboa da. Gidatan sartzen zaituzte eta hori ona da. Baina batez ere barne-antolaketan hobetu nahi genuen, oso inportantea, enpresak ondo funtzionatu dezan.

Q kalitatea bezalako ziurtagiriaren jabe izateak, ze abantaila ekarri dizkio zure enpresari?

Kalitateari lotuta, gauza asko egiten genituen, baina ez genituen erregistratzen. Q kalitateari esker, informazioa pilatu eta, nahi dugunean, kontsultatzeko modua dugu. Barne-funtzionamenduan, oso lagungarri dira Q kalitateak ezartzen dituen irizpideak.

Bezeroa gustura sentitu dadin, zer nolako hobekuntzak eman dira ziurtagiriari esker?

Orain, inkestak egiten ditugu bezeroen artean, euren iritziak bildu asmoz. Ia gustura izan diren gure jate-txean, giroa egokia izan ote den, jantaria gustukoa izan den ala ez, prezioa-

kalitatea ona iruditu zaien ala ez... Inkesta horiek, hobetu beharrekoak hobetzen laguntzen digute. Baina berriz diot, barne-antolaketa da guretzat inportanteena. Enpresa ondo badabil, gainontzekoa bakarrik iritsiko da.

Q ziurtagiri honen jabe izateak, zure enpresaren lehiakortasuna hobetuko duela uste duzu?

Noski baietz. Hobekuntza guztiak dira onak; eta irudi hobea ematen dizu. Baina irudi hobea emateko baino, hobeto funtzionatzeko oso baliogarria da Q ziurtagiria.

Q kalitatearen kultura sustatzeko, ze aldaketak egin dituzue edo ze aldaketa egiteko asmoa duzue?

Hau enpresa familiarra da. Gure aitona-amonak hasi ziren honekin. Aspaldiko ohiturak jarraitu ditugu



GORKA TXAPARTEGI SUKALDARIA ALAMEDA JATETXEAN, HONDARRIBIA.

baina garai berrietara egokitu beharra dago. Dena den, egia da dirulaguntzak jaso ditugula lehen urtean. Baina apostu hori sendotzeko, komeniko litzateke laguntza hori luzatzea denboran. Azken batean, ekonomikoki ere ahalegin handia eskatzen du Q ziurtagiria mantentzeak. Eta gehienak enpresa txikiak gara.

Eusko Jaurlaritzak Basquetour Turismoaren Euskal Agentziarekin batera, enpresak lehiakorrago izateko beharrezkoak diren tresnak eta laguntzak eskaintzen ditu ondo-rengo programen bidez:

Jardunbide egokiko programak
Kalitatearekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa, sektoreko profesionalen zuzendua.

Kalitate Turistikoko
Q programak
Kalitatearen kudeaketa-sistema

neurtzen duen ziurtagiria. Bezeroaren gozamenari ziurtatzen duen programa.

EFQM ereduko programak
Kalitatea goreneko mailan ziurtatzen duen programa.

Q Kalitate Turistikoaren
ikurra jarri zure
establezimenduan!

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net



Ikasteko, beti da garai ona

Laster hasiko da Esperientzia Eskola, 50 urtetik gorakoei zuzendua

Antolatzaileek guztia prest dute, Esperientzia Eskola Tailerra zabaltzeko. 50 urtetik gorako herritarren bilgunean bilakatuko da Artzabalgo egoitza, ondo pasa, arlo desberdinekiko ezagutza maila hobetu eta eguneko zereginetatik aldentzea ardatz edo helburu duen eskola. Aurtengo gorabeherak tailerreko arduradun Aitziber Indartek dakartza.

NOAUA! Noiz hasiko da ikasturtea?
Aitziber Indart. Azaroaren 10ean. Klaseak asteartetan izango dira, 16:00-18:00 artean.

N. Dena prest duzue hirugarren ikasturteari ekiteko?

A. I. Martxan jartzeko inauguratzea besterik ez da falta. Bestela, programazioa egina dago eta ikasleek izena eman dute.

AITZIBER INDART

“Oraindik plaza libre batzuk badaude. Usurbilen 27 ikasle matrikulatu dira”

N. Matrikulazio epeak ordea irekita jarraitzen du?

A. I. Irekita dago, beti uzten dugu jendea apuntatzea. Taldea 25 ikaslerekin osatzen dugu. Kontua da, denak beti ez direla eskolara etortzen. Horregatik, izena eman dezaketenen kopurua igotzen dugu. Oraindik plaza libre batzuk badaude. Usurbilen 27 matrikulatu dira.

N. Esperientzia Eskola Tailerra nolatan zabaltzen da lehen aldiz?

A. I. Proiektu hau duela hiru urte jarri zen martxan. Orion hasi zen, herritarrek eskatuta. Gero usurbildarrek eskatu zuten eta segidan Urnietakoek. Beraz, urte berean lau tailerrak jarri ziren martxan; aipatutakoak eta Azpeitikoak.



AITZIBER INDART, ESPERIENTZIA ESKOLAKO ARDURADUNA.

N. Eskolak martxan jartzeko eskaera gehiago jaso al dituzue?

A. I. Zumaia, Andoain edota Hernanitik. Kontua da, ezin dugula leku guztietara ailegatu. Orain, tailerrez gain, eskualde guztietan Esperientzia Eskola bana dugu. Tailerren desberdintasuna da, Esperientzia Eskola astean hirutan egunez hiru orduz direla. Tailerrena, herritarren eskaera izan da.

Aipatutako lau herrietako herritarrek dependentzia egoeraren bat bizi zuten, gurasoak edo bilobak zaintzeko ardura zuten. Ez zuten astirik beste lekuetara joateko. Astean behin bi orduz nahi zuten tailerra bere herrian, deskonekta-

tzeko, ikasteko, euren artean harreman gehiago izateko.

N. Esperientzia Eskola Tailerra nola definitu liteke?

A. I. Beste hezkuntza proiektuekin alderatuta, Esperientzia Eskola ez dela hezkuntza proiektu soil bat, haratago doa. Parte hartzea bultzatzeko hezkuntza proiektu bat da. Helburua, helduek aktibo izaten jarraitzea da. Ez daitezela etxean geratu, gauzak egin behar direla, sozialki inplikatu beharra dagoela. Modu horretan, askoz hobeto sentituko dira eta askoz beranduago ailegatuko dira erresidentzia batera edo dependentzia egoera batera.

“Ez daude azterketak eskola honetan”

N. Beste hezkuntza eskaintzetatik desberdindu beharra dago, Esperientzia Eskolan ikasle zein ikasleek betetzen duten funtzioa.

A. I. Metodologia desberdina da. Printzipioz, ikasleak u forman esertzen dira. Maisuak lehen orduan bere teoria ematen du, gero galdera, iritzi eta ekarpenen tartea izaten da. Maisuak berak

dio eskolatik berak asko ikasten duela. Ez daude azterketak, ikasleei dakitenaz ez zaie galdetzen, nahi duenak galdetu eta iritzia ematen du. Klase amaieran, ikasle bakoitzak saio bakoitza baloratzen du, 0tik 10era: maisua, gaia, metodologia, materiala, lokala... Eta haien balorazioak kontuan hartuta, hurrengo ikasturteko programazioa egokitzen da.

“Zerbait egin behar da denbora librean, ezin gara etxean geratu”

NOAUA. Testuinguru horretan ulertu behar da tailerra 50 urtetik gorako herritarrei zuzendua egotea?

Aitziber Indart. Aurre jubilatua edo jubilatua, etxeko andreak... bat batean denbora libre asko dute. Denbora libre hori, lehen ezer ez egiteko momentu gisa ikusten zen, baina azterketa askok diote hori kaltegarria dela. Gaixotasunak, memoria falta eragin ditzake. Gaur egun ditugun helduek pentsaera desberdina dute, gauzak egiteko gogoz daude.

N. Aurreko urteetan, ikasleen artean emakumezkoak nagusi. Gizonezkoak ez dira ausartzen ala?

A. I. Tailer guztietan gauza bera gertatzen da. Egin dugun datu bilketaren arabera, ikasleen %70a emakumezkoak dira. Gizonezkoak pixka bat atzerago gelditzen dira, beldur apur bategatik, zer aurkituko duten, zer jende dagoen. Emakumeak proba egitearen aldekoak dira.

AITZIBER INDART

“Esperientzia Eskolan gaiak ikasleen gustukoak ez badira, aldatu egiten ditugu”

N. Eta probatzen duten guztiek esperientzia errepikatzen omen dute...

A. I. Pentsa, 2000. urtean ez genekien jendeak izena emango zuen edo ez, eta aurten hiru urte daramatzagu itxarote zerrendarekin eta jendea eskola errepikatzen ari da. Eta haiek jende berria ekartzen dute. Eskolak ia beteta daude. Guretzat helburua ia bete dago. Eta jendea gustura. Guk ez ditugu azterketak, ez ditugu ikasleak baloratzen. Ikasleek baloratzen dute guztia.

N. Ikasleek zer gai dituzte gogokoen?

A. I. Gaixotasunen gaiak batere ez. Beste gai batzuk ikasi nahi dituzte; filoso-



ESPERIENTZIA ESKOLA ARTZABALEN ESKAINIKO DA, ASTEARTE ARRATSALDETAN.

fia, literatura, artearen historia, Euskal Herriko historia, teknologia berriak, informatika, hedabideak, antropologia...

N. Harritu zaituzte ikasleen zaletasunek?

A. I. Bai. Hasieran pentsatzen genuen ikasleentzat ez zirela gai gustagarriak izango. Baina bai. Maisuak dira giltzariak, klaseak nola ematen diren, nork ematen dituen. Edonork ezin du irakatsi Esperientzia Eskolako klaseetan. Maisuak hasi, eta ikasleen gustukoak ez badira, aldatu egiten ditugu.

N. Ikasturtea zer modutan amaitu nahi zenukete?

A. I. Urtero bezala bukatzen bada, gu pozik geratuko ginatke. Aurten helburu bat badugu, belaunaldi arteko proiektu bat gauzatzea. Orion bi urteetan lortu dugu, Esperientzia Eskolako ikasleek eta ikastolako 14-15 urteko ikasleek proiektu bat egitea. Ikastolako ikasleak bi egunez elkartera joan ziren. Bertan, Esperientzia Tailerreko ikasleek sukaldaritza, josteta, plantxa... irakatsi zieten. Oso polita da, taldeka txandakatu jar-duera desberdinak egiten joaten dira. Bukaeran sukaldean ikasitakoa denek batera jaten dute. Beste bi egunez, Esperientzia Eskolako ikasleak ikastolara joan ziren. Ikasleek ingelesa eta informa-

tika irakatsi zieten. Helduak oso gustura sentitzen ziren barrerik ez zegoelako, eurenganako errespetu handia baizik. Proiektu hau Usurbilen gauzatzea ere nahi genuke.

N. Zalantzan dagoen ikaslearentzat azken hitzak.

A. I. Proba dezala. Hasi astebete edo bi, eta gustatuko zaio. Gustuko ez badu, utzi eta kito. Probatu duten guztiek jarraitu dute. Zerbait egin behar da denbora librearekin, ezin gara etxean geratu.

Laster amaituko da matrikulatzeko epea

Aurkezpena: azaroak 10 asteartea, 16:00-18:00. Artzabalen.

Klaseak: asteartero, 16:00-18:00. Artzabalen.

Landuko diren gaiak: Euskal Herriko historia, gorputz adierazpena, literatura, belaunaldi arteko proiektua prestatzea...

Ikasturte amaiera: maiatza bukaera.

Matrikulatzeko: 943 224 146.

Altxorraren bila

Kaixo lagunak! HH5eko umeak gara eta joan den asteartean piratetan jolastu ginen. Begian partxea eta buruan zapia jarri genuen, batzuk ezpata eta guzti ekarri zuten etxetik, benebenetako piratak ematen genuen. Altxorraren bila oso oso ondo pasa genuen!

Patiora joan ginen altxorraren mapak aurkitzera gure andereño bihurri horiek han ezkutatu baitzituzten. Baina gu pirata ausartak izanik berehala aurkitu genituen ja, ja, ja. Mapak kartoizko tubo batetan sartuta zeuden: "Hau izango da" "Bai, bai hori da" esan zuen norbaitek. Gela bateko altxorraren mapa puskatuta aurkitu genuen eta oso,oso,oso haserre jarri ginen.

Pirata gaizto eta maltzur batzuk puskatuko zuten seguraski! Zatiak elkartzuz lortu genuen gurutzeta aurkitzea. Eskerrak!

Altxorraren mapa ireki eta X ikusi



EA AURKITZEN DUZUEN ALTXORRA PRESTATU DUGUN MAPA HONETAN.

genuen. Ah, gure gelako mapa da. Goazen, goazen korrika gelara. Hemen ez, eh, hor egongo da, ez, ez. Eh lagunak, hemen dago Altxorra.

Altxorra kutxan globoak, pegatinak eta txokolatzeko txanponak zeuden.

A ze sorpresa. Oso oso ondo pasa genuen.

Ea zuek ere aurkitzen duzuen altxorra guk prestatu dugun altxor mapa honetan. Ea ba, erraza da eta, saiatu zaitzete!

Azaroan, gurasoentzat tailer interesgarriak

Gogotsu ekin diote ikasturte Gberriari Hitz Aho guraso elkartekoek. Euren ekimenak guraso denei daude zuzenduta. Aurreko astelehenean, adimen emozionalari buruzko hitzaldia egin zen Udarregin. Laster, gai honi lotuta, tailerrak jarriko dira martxan. Hizlari lanetan, Joxe Amiama psikopedagoak jardungo du.

Autoezagutza, besteen harremanekin lotuta dauden enpatia, gaitasun sozial eta bizitzeko trebetasunak, adimen emozionalaren gaiarekin erlaziozuzeneko kontzeptuak dira. Hitz Ahotik gogorarazten dutenez, "adimena ingurari moldatzeko gaitasuna, edo mun-

duaren eskaera eta premiei erantzuteko gaitasuna da". Gure alderdi arrazional zein emozionalak aipatu moldaketan parte hartzen dute, guraso eskolatik gaineratzen dutenez. Horregatik aipatu gaiari lotuta zenbait hitzordu deitu dituzte gurasoen bilgune honetatik. Aurreko asteleheneko sarrera hitzaldia eta gero, azaroan tailerrak jarriko dira martxan, gai honi lotuta.

Gurasoentzat tailerrak

HHkoentzat: azaroak 16, 23, 30. Arratsaldeko 17:00ean.

DBHkoentzat: azaroak 16, 23, 30. Arratsaldeko 18:30ean.

LHkoentzat: azaroak 18, 25 eta abenduak 2. Arratsaldeko 17:00etan.



ABENDUAN JOSTAILU AZOKA ANTOLATUKO DUTE HITZ AHOKOEK.

Oharra: ekitaldiek iraun artean, haurtzaindegi zerbitzua izango da.

Informazio gehiago:
www.udarregi.com

“Ahuntza edo nor da Silvy?” antzezlan, Ramon Agirre eta Ane Gabarainen eskutik

Euskal aktore ezagunetako batzuk igoko dira ostiral honetan Sutegiko oholtza gainera. Ramon Agirrek Martin izeneko arkitekto ospetsu baten pertsonaia interpretatzen du. Ane Gabarain, Stevie du izena obra honetan, Martinen emazte maitea da. Pozik bizi dira. Bikote perfektoa, itxuraz.

Martin arkitektoak Pritzker saria eskuratu berri du eta betiko laguna duen kazetaria (Asier Hormaza) joan-

go da bere etxera elkarrizketa egitera. Martinek Silvyarekin erabat maite-minduta dagoela aitortuko dio. Silvy, ordea, ahuntza da. Hau da antzerkiaren abiapuntua.

Sarrerak kiroldegian salgai
Urriak 30 ostirala. 19:30ean, Sutegin. Sarrerak: aldeztatik 8 euro (kiroldegian salgai), egunean bertan 10 euro.

Aktoreak: Ramon Agirre, Asier Hormaza, Ane Gabarain, Asier Oruesagasti.



SARRERAK, ALDEZ AURRETIK, KIROLDEGIAN JARRI DIRA SALGAI 8 EUROTAN. TAKILAN, BERRIZ, 10 EURO.

Azaroaren 10ean hasiko da NOAUA! Kulturaldia

Urtero, azaro partean, kulturaste modukoa antolatu ohi dugu NOAUA! Kultur Elkartetik. Aurtengoa azaroaren 10ean hasiko da eta lau ekitaldiz osatuta izango da.

AZAROAK 10 ASTEARTEA “Usurbilgo ondarea ezagutzen”, liburu aurkezpena

Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek gure inguruko ondarearen inbentarioa osatu dute. NOAUA!k, Alkartasuna Kooperatibak eta Udalak elkarlanean plazaratuko duten liburuaren aurkezpenarekin hasiko da aurtengo Kulturaldia.

Azaroak 10, 19:30ean Artzabalen

AZAROAK 12 OSTEGUNA “Usurbilgo elkartasuna Etiopian”, diaporama proiektzioa

Ana Urdangarin eta Larraitx Izagirre Etiopian izan ziren uda partean. Aurretik, elkartasun ekimen bat bideratu zuten herrian. Esperientzia aberasgarri horren berri emango dute Kulturaldian.

Azaroak 12, 19:30ean Sutegin



ETIOPIAKO BIDAIAZ ARITUKO DIRA ANA URDANGARIN ETA LARRAITX IZAGIRRE.

AZAROAK 13 OSTIRALA Zura taldearen kontzertua

Bidasaldeko talde honek zur eta lur utzi zituen zaletuak eta prentsa adituak. Bossa nova eta sanba doinuak euskararekin ondo moldatzen direla erakutsi dute “Kiribil” izeneko diskoan.

Azaroak 13, 22:30ean Sutegin

AZAROAK 14 LARUNBATA Euskarazetamol antzezlan

Mikel Martinez eta Patxo Telleriaren eskutik, barrez lehertzeko aukera berri bat izango dugu.

Azaroak 14, 20:00ean Sutegin

Ander Lipusen hitzaldia Sutegin

FTI Antzerkiola Imaginarioak “Babiloniako loreak” antzezlan estreinatuta berri du. Donostiako Gasteszenan eskainiko dute asteburu honetan, urriaren 31n eta azaroaren 1ean (Gasteszena, Egia auzoa, Donostia, 20:00etan).

Hori dela eta, obraren zuzendaria den Ander Lipus Usurbilera hurbilduko da ostegun honetan, “Babiloniako loreak”en inguruan hainbat azalpen ematera.

Urriaren 29an osteguna, Sutegin, 19:30ean. Sarrera libre.



Gipuzkoako Judo Txapelketan, areriorik ez

Aurreko igandean, Euskal Kirolaren Eguna ospatu zen Tolosan, Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) antolatuta. 6.000 pertsona hurbildu ziren Tolosara, euskal selekzioei sostengua ematera. Guztira, 500 bat kirolarik hartu zuten parte txapelketa, erakustaldi zein tailerretan. Tartean, Usurbilgo Judo Taldeko kirolariak. Gipuzkoako Txapelketa jokoa zen eta usurbildarrek emaitza onak eskuratu zituzten.



TOLOSAN JOKATU ZEN GIPUZKOAKO JUDO TXAPELKETA, AURREKO IGANDEAN.

Kirol jardueren festa izateaz gain, ekitaldi ofiziala ere izan zen aurreko igandekoa, euskal kirol zein selekzioen aldarrikapena egiteko baliatu zena.

Baina lehiaketarako tartea ere izan zen pasa den igandean Tolosan, Euskal Kirolaren Egunean. Gipuzkoako Judo Txapelketa jokatu zen, besteak beste. 14 maila ezberdinetan antolatu zen judo txapelketa, eta 13tan nagusitu zen Usurbilgo Judo Taldea. Txapelketaren amaieran, babarrun jan batekin ospatu zituzten lortutako garaipenak.

GIZONEZKOAK

-60 kg Andoni Aizpurua (urrea), Oier Lopez (brontzea).
-66 kg Daoud Doua (urrea), Iñigo Mitxelena (brontzea), Aratz Pinter (5º).
-73 kg Ibai Peña (urrea), Aitzol

Arrozpide (brontzea), Abel Herrero (5º), Ion Martin (6º).

-81 kg Xabier Urkizu (urrea), Mikel Camarero (brontzea).
-90 kg Egoitz Mora (urrea).
-100 kg Iker Lizarribar (urrea).
+100 kg Mikel Ponga (urrea).

EMAKUMEZKOAK

-48 kg Aiora Arrillaga (urrea), Eneritz Agoues (zilarra).
-52 kg Nerea Sanz (urrea).
-57 kg Andrea Arruabarrena (brontzea).
-63 kg Maier Uriarte (urrea), Maialen Zubeldia (zilarra), Ane Cazorla (brontzea).
-70 kg Nerea Arruti (urrea).
-78 kg Jessica Romero (urrea).
+78 kg Marijo Sardon (urrea).

Pilates ikastaroa antolatu da Aginagan

Pilates ikastaroa antolatu dute Aginagan. Astean behin izango da, asteleheneretan, gaueko 20:00etatik 21:00etara. Ludotekan emango da ikastaroa. Prezioa, hilean 25 euro. Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu: 650 69 24 58.

Akatsak zuzentzen

Aurreko asteko NOAUA!n, Antxeta eta Saltxipira joateko errifa zozketak "Usurbil FT taldekoek" egin zituztela idatzi genuen. Usurbil KE da eskubaloi errifak egiten dituen. Lerro hauen bidez, barka sortutako eragozpenak.

Kirol Patronatuko abonatuaren ordezkari-tza berritzeko prozedura zabaldu da

Izaera herrikoi handiagoa eman lasmoz, Kirol Patronatuak abonatuaren ordezkari-tza berritzeko asmoa du. Bi urtez behin burutu ohi duen prozedura abian jarri du eta abonatuari hautaketa prozesuan parte hartzera deitzen zaie.

Hona hemen, Kirol Patronatuak prestatu eta aintzakotzat hartu behar diren egunak:

Azaroak 1 arte: 18 urtetik gorako abonatuaren behin-behineko zerrenda

ikusgai egongo da Oiardo kiroldegian, akatsak zuzentzeko.

Azaroak 7: hautagaiak aurkezteko epea.

Azaroak 12: behin betiko abonatuaren zerrenda eta hautagaiak onartu eta iragartzea.

Azaroak 18: erreklamazioak egiteko azken eguna. **Azaroak 25:** bozketa eguna.

Pilota partidak

URRIAK 29 OSTEGUNA
AGINAGAN, ARRATSEKO 20:15EAN
Paleta Goma, 1. maila
USURBIL - REAL SOCIEDAD
(Iñigo Huegun-Haritz Urdanpilleta)

Esku binaka nagusiak, 3. maila
USURBIL - LIZARDI-IGELDO
(Enrike Huizi -Jon Olaizola)

Paleta goma, 3. maila
USURBIL - ZARAUTZ
(Josu-Patxi Arruti)

URRIAK 31 LARUNBATA
USURBIL, GOIZEKO 11:30EAN
Jubenilak, banaka
USURBIL - BERGARA
(Julen Gesalaga)

Esku binaka nagusiak, 1. maila
USURBIL 2-LAGUNAK (Elgoibar)
(Jabier Santxo-Asier Katalina)

Usurbildar asko "Lasarte-Oria Bai" lasterketan

Lasarte-Oriako Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen "Lasarte-Oria Bai!" herri lasterketa jokatu zen igandean. Gizonezkoen lasterketan, Andoni Etxeberria nafarrak (Orkoien) egin zuen denbora onena, 10 kilometroak 31'56'' osatu zituen. Emakumezkoen lasterketan, Ainhoa Sanz urretxuarra erraz nagusitu zen. Usurbildar asko aritu ziren Lasarte-Oriako krosean. Hona hemen, Ostadarren webgunean aurkitu ditugun usurbildarren denborak.

USURBIL

18 Iñaki Gerica Juan	00:35:19
21 Iñaki Añorga Unanue	00:35:34
39 Koldo Manterola Aizpurua	00:36:28
56 Igor Labaka Lizarazu	00:37:34
64 Jon Tapia Lizarraga	00:37:54
125 Jose Mari Seodane Mayoz	00:39:51
144 Jon Rueda Etxeberria	00:40:27
204 Gerardo Armendariz Azpiroz	00:41:45
225 Iban Maritxalar Elizondo	00:42:14
226 Leire Albizu Arrieta	00:42:14
235 Juanjo Estevez Martin	00:42:21
251 Juan Carlos Perez Lizarralde	00:42:44
254 Floren Lantz Bordagarai	00:42:53
308 Guillermo Rueda Etxeberria	00:43:56
314 Tito Izaguirre Godinean	00:44:01
337 Mikel Ibarreta Borda	00:44:23
377 Juan Mari Agote Goiaran	00:45:02
378 Aitor Jauregi Urdanpilleta	00:45:02
382 Iker Muguruza Pikabea	00:45:05
397 Mikel Arrillaga Azkarate	00:45:14
410 Fco. Javier Rodriguez Cuenca	00:45:26
449 Jose Manuel Iñarra Ferreira	00:45:53
476 Juan Manuel Martin Diosdado	00:46:20
486 Jon Alejo Toledo	00:46:25
505 Josu Portu Alzaga	00:46:41
589 Iñigo Alkorta Etxeberria	00:47:51
594 Juan Jose Lertxundi Azkue	00:47:56
595 Xabier Pagola Uranga	00:47:56
596 Imanol Almandoz Odriozola	00:47:57
603 Eduardo Jauregui Torrecilla	00:48:04
609 Moises Andres Zubiria	00:48:08
610 Iñaki Etxebarria Orbegozo	00:48:09
626 Juan Galardi Mendiluze	00:48:21



PARTEHARTZE HANDIKO LASTERKETA IZAN ZEN. TARTEAN, USURBILDAR ASKO ARITU ZIREN.

636 Joxemari Portu Azpiroz	00:48:29
646 Joseba Lertxundi Etxeberria	00:48:37
696 Joseba Zubeldia Agirre	00:49:33
697 Anartz Aizpurua Berdegue	00:49:34
764 Josu Arruti Huegun	00:50:47
834 Txus Iglesias Rio	00:51:55
835 Pello Zumeta Beraetxe	00:51:56
844 Iñaki Izagirre Sagardia	00:52:03
845 Gema Olasagasti Intxausti	00:52:06
865 Zuriko Lataillade Aizpurua	00:52:30
922 Aitor Otamendi Lizarazu	00:53:52
923 Aitor Yarza Maiz	00:53:52
930 Ainara Uribe Navarro	00:54:01
997 Roman Agirre Arruti	00:56:07
1010 Intza Makuso Iribar	00:56:21
1088 Imanol Zarautz Bengoetxea	00:59:48
1101 Miren Eceiza Iruretagoiena	01:00:24
1113 Michel Zugasti Soriana	01:01:37
1141 Martxelo Sanchez Blázquez	01:05:22
1142 Joxelu Zabala Amundarain	01:05:27
1143 Josune Estella Arranz	01:05:33

ZUBIETA

190 Idoia Ezeiza Iruretagoiena	00:41:35
605 Alazne Olaizola Iparragirre	00:48:05
806 Tomas Imaz Izagirre	00:51:29
991 Axier Munduate Zabala	00:55:58

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

Agenda!

Urriak 30 ostirala

- "Ahuntza edo nor da Silvia?", antzezlan. 19:30ean Sutegin.

Azaroak 1 igandea

- XIV. Artisautza Azoka, 11:00etatik aurrera frontoian.

Azaroak 2 astelehena

- Odol ematea, 19:00etatik 21:00etara anbulatorioan.

Azaroak 3 asteartea

- Berdintasunerako Udal Plana, kirol arlokoekin bilera irekia. 19:00etatik aurrera Artzabalen.

Azaroak 4 asteazkena

- Kontsumo kooperatiba osatzeko bilera irekia, 19:00etan Sutegin.

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 29, osteguna

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 30, ostirala

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urriak 31, launbata

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 1, igandea

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 2, astelehena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 3, asteartea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 4, asteazkena

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 5, osteguna

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Azaroak 6, ostirala

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 7, larunbata

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Azaroak 8, igandea

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietza kalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Kontsumo kooperatiba bat osatzeko deialdia egin da herrian

Udalak herriko produktuak sustatzeko asmoa du. Proiektu baten bidez, kontsumo kooperatiba bat zabaltzeko dauden ereduak eta aukerak aztertu nahi ditu, egitasmoa bera gauzatu baino lehen. Ekimena aurkeztu eta herritarren ekarpenak jasotzeko bilera deitu dute. Azaroaren 4an, 19:00etan Sutegin.

Herrian ekoizten diren produktuak bultzatzeko lanean murgildua dago Udala. Nekazaritzarako herri lurak prestatu eta baserritar berriak erakartzearekin batera, Kontsumo kooperatiba bat zabaltzea litzateke proiektuaren xedea, baina horretarako herritarren ekarpenak kontuan hartu nahi dira.

KOOPERATIBA OSATZEKO DEIA

"Azaroaren 4an bilera bat antolatu da Sutegin, herritar guztiei irekia"

Bilkurak egiten hasiak dira herriko elkarte, baserritar, edota hezkuntza alorreko eragileekin. Oro har ordea, herritarrekin ere bildu nahi dute, azkenean, Pedro Alberdi egitasmoko arduradunak NOAUA!ri duela astebete adierazi bezala, beharrezkoa baita elkarlana, ekoizle zein kontsumitzaileen artekoa.

Horregatik, herri bilera deitu dute datorren azaroaren 4rako. Asmoa, Udalak gauzatu nahi lukeen egitasmoa aurkeztea litzateke, eta horrekin batera, hitzordura joandakoei hitza ematea,



HERRIKO HAINBAT ERAGILEEKIN LEHEN BILERA EGIN ZEN AURREKO OSTEGUNEAN.

haien proposamenak biltzeko. Herrian kontsumo kooperatiba bat zabaltzeko zer nolako aukerak eta ereduak dauden aztertu nahi da. Irudian, urriaren 22an herritar talde batekin Artzabalen burutu zen lehen aurkezpen saioa.

Bilera irekia da

Eguna: azaroak 4, asteazkena.

Ordua: 19:00.

Tokia: Sutegi.

Deitzailea: Udala.

Argibide gehiago,

Arreta Bulegoan

Bilera aurretik eta haren ondoren, zabalik jarraituko du argibideetarako Udalak zabaldu duen Arreta Bulegoak. Garai bateko Gure Pakea zahar egoitzan kokatua dago, egun ludoteka dagoen lekuan.

Asteazkenetan: 11:00-14:30.

Ostegunetan: 14:30-19:30.

Telefono zenbakiak: 943 371 050 edo 660 061 251.

E-posta: ingurumena@usurbil.net

Azaroaren 2an, odol ematea

Duela egun batzuk, odola ematen nabarmendu diren herritarrei diploma bana eman zitzairen. Azaroaren 2an astelehena, odola emateko aukera berri bat izan-

go da, beti bezala, anbulatorioan, 19:00etatik aurrera.

Abenduaren 8an, urtero bezala, Odol Emateen Eguna ospatuko dute Usurbilgo odol emateak.

ETXEBIZITZA

- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisu berria da eta Usurbilgo kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu iluntzeko 20:00etatik aurrera 661 56 84 71 telefonora.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414.

- 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Usurbilgo emakume bat, herritarra, eskaintzen da gaixok zaindu edo etxeko lanak egiteko. Nahi den ordutegia, gaixoekin gaua egiteko ere prest. 687348223
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lokal egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da.

630768325.

- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zazpi gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat eurotan. Tlf zenbakia: 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaia, kafe-makina, ontziteria, kaxa erregistratzailea, irabiagailua, zuku-makina, ontzi-garbigailua, harraskak, altzairu herdoiltzezinezko gainekoa... 607 389 570 (Mireia).
E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazauzke maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentziora jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekien eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak Noa eta Oren!

Azaroaren Ilean Noak 4 urte egingo ditu, eta azaroaren 6an, Orenak 9 urte beteko ditu. Zorionak bioi etxeko guztien partez eta muxu handi bana!



Zorionak Unax!

Urriaren 30ean 5 urte egingo dituzu. Muxu potolo potolo asko aita, ama eta Iratiren partez eta oso ondo pasa!



Oharra: Jaiotzak Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotzen ditugu. Mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: 943 360 321.
E-posta: erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

Ekhiñe Almandoz Lazkoz,
2009ko urriaren 18an.

09

noaua!

10 Azarook 10, asteartea
Ordua: 19:30h
Artzabalen

Usurbilgo ondarea ezaqutzen

Aurkezpena



Sarrera: doan

12 Azarook 12, osteguna
Ordua: 19:30h
Sutegin

Usurbilgo Elkartasuna Etiopian

Diaporama



Sarrera: doan

13 Azarook 13, ostirala
Ordua: 22:30h
Sutegin

Zura taldearen

Kontzertua



Sarrera: aldez-aurrerik erosita 6€ (Txiribogan eta Noauako egoitzan soilak). Egunean bertan 8€. Noauako bazkideek 5€tan erosi ahal izango dute Noauako egoitza aldez-aurrerik.

14 Azarook 14, larunbata
Ordua: 20:00h
Sutegin

Euskarozetamol antzezlanak
EZ DOK HIRU Bikoteatrook

Antzezlanak



Sarrera: aldez-aurrerik erosita 6€ (Txiribogan eta Noauako egoitzan soilak). Egunean bertan 8€. Noauako bazkideek 5€tan erosi ahal izango dute Noauako egoitza aldez-aurrerik.



Ofizioen Gida



URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

943 367 264
649 435 475
649 435 476

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

☎ 663 08 76 71
☎ 943 24 34 65
Barne eta kanpoko lanak

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 **Errazkin S.L.**
igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470
kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue
teillatuak eta fatxadak

943 69 68 52
620 80 01 86
Obaba kalea 29, Asteasu



LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021



Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Josexo Ikatzeta

687 951 225

**JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA**

943 83 00 72
659 88 39 12

 **Enrique Alonso**
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak

TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

☎ 659 675 283

Javier Orbegozo

GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3. esk



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Elektrizitatea

Golz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa



**Antonio
URRUZOLA**

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leihoak-eskailerak

Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Saisamendi Arregi, Imanol

ARROZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO
PINTORAK**

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



PLADUR



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78